

## **OSAKIDETZA EUSKAL OSASUN ZERBITZUAREN ADMINISTRAZIO KONTSEILUAREN 2014ko ABENDUAREN 30eko BILERAREN AKTA**

Lehendakariak deituta, Osakidetza Euskal Osasun Zerbitzuaren Administrazio Kontseilua eratu da, Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzaren egoitzan, 2014ko abenduaren 30eko 08:30ean, eta honako hauek dira bertaratutakoak eta gai-zerrenda:

### **BERTARATUAK**

#### **LEHENDAKARIA**

Jon Darpón Sierra jauna

#### **LEHENDAKARIORDEA**

Guillermo Viñegra García jauna

#### **BOKALAK**

Hernando Lacalle Edeso jauna  
Iñaki Berraondo Zabalegui jauna

#### **IDAZKARIA**

María Jesús Gemma Múgica Anduaga andrea

Era berean, Kontseiluaren bilerara etorri da, lehendakariak gonbidatuta, Jon Etxeberria Cruz jauna, Osakidetza Euskal Osasun Zerbitzuaren zuzendari nagusia.

Ez da bertaratu Pedro María Hernano Arranz jauna.

## GAI ZERRENDA

### LEHENA.- Administrazio Kontseiluak 2014ko abenduaren 9an egindako bileraren akta irakurtzea eta, hala badagokio, onestea.

Ez da irakurri, Kontseiluko kideei lehenago bidali baitzaie; lehendakariak balioetsi ostean, 2014ko abenduaren 9an egindako bileraren akta onartzen da.

### BIGARRENA.- 2015ean Erakunde Sanitario Integratu (ESI) berriak sortzeko proposamena.

Zuzendari nagusiak 2015erako ESI berriak sortzeko erabaki-proposamenak aurkeztu ditu.

**ERABAKIA, 2014ko ABENDUAREN 30ekoa, OSAKIDETZAREN ADMINISTRAZIO KONTSEILUARENA, ZEINAREKIN, GIPIZKOAKO OSASUN BARRUTIAN, OSASUN ZERBITZU INTEGRATUEN BI ERAKUNDE SORTZEN BAITIRA. HONAKO HAUEK DIRA ERAKUNDEOK, BATA; "DONOSTIALDEA" IZENEKOA, ZEINETAN INTEGRATZEN BAITIRA, BATETIK, DONOSTIA UNIBERTSITATE OSPITALEKO ZERBITZU ERAKUNDEA, ETA, BESTETIK, HORREN ERREFERENTZIAKO EREMUAREN LEHEN MAILAKO ARRETARAKO UNITATEAK; ETA, BESTEA: "TOLOSALDEA" IZENEKOA, ZEINETAN INTEGRATZEN BAITIRA, BATETIK, AIPATUTAKOAREN ERREFERENTZIAKO EREMUKO LEHEN ARRETARAKO UNITATEAK, DESEGITEN DEN GIPIZKOAKO ESKUALDEARI ATXIKIAK, ETA, BESTETIK, TOLOSAKO ANBULATORIO ARRETA ESPEZIALIZATU EZ-FAKULTATIBOAREN EGUNGO EGITURA.**

Osasuneko sailburuak "X. Legegintzaldirako Osasun Politiken Lerro Nagusiak" aurkeztu zituen Eusko Legebiltzarrean, eta, lerro horiekin bat etorritik, Osakidetza Euskal Osasun Zerbitzuak zehaztu egin ditu 2013-2016 epealdirako Ildo Estrategikoak eta Ekintza Planak. Ildo estrategiko horiek zenbait helburu eta ekintza definitzen dituzte, gauzatzeko hedatu beharrekoak, eta aldaketak ekarriko dituzte, integrazioa izanik haien erdigunea.

Prozesu asistentzialak integratuz, pazienteen osasuna hobetzeko diren osasun zainketak antolatzeko printzipio bat bada arreta integratua.

Azken batean, sistema sanitarioaren maileri begira sinergiak aprobetxatzea eta koherentzia lortzea dira helburuak, ezaugarri hauek izan ditzaten osasun-zainketek: zatiketa txikiagoa, koordinazio handiagoa, eragingarritasun handiagoa eta kalitate hobea.

Gure kasuan, arreta integratua bideratzeko, erakunde sanitario integratuen eredua hedatzeko apustua egiten dugu, bai, halaber, mugape geografiko jakin baten barruan lehen mailako arretako zentroak eta haien erreferentziako ospitalea elkartzeko apustua ere.

X. Legegintzaldirako Osasun Politiken Lerro Nagusien barruan, 1. ildo estrategikoak, batetik, pertsonak hartzen ditu sistema sanitarioaren ardatz nagusitzat; bestetik, "pazienteentzako zerbitzua hobetzeko, sistema sanitarioaren kalitatea hobetzea" du helburu; eta, horretarako, ikuspuntu integraleko prozesu asistentziala garatzea aipatzen da, pazienteak izanik erdigunea; bestalde, prozesu horretan ziurtatu egiten da bai arretaren jarraipena eta bai arreta pertsonalizatua ere. Era berean, 2. ildo estrategikoak honako hauek hartzen ditu kontuan: arreta-maila ezberdinen arteko integrazio asistentziala, hain justu ere Euskadiko biztanleria zahartzeari erantzuna emateko, eta, ondorioz, gaixotasun kronikoak eta dependentsia areagotzea.

Hortaz, arreta integratua funtsezko printzipioa da zainketa sanitarioen antolaketa; eta, zentzu horretan, beharrezkoa da eremu asistentzialek osatzen dituzten erakundeak eta zerbitzuak integratzen jarraitzea, hartara erakunde integratuak osatzen dituzten egitura bateratuak sortuta, betiere pazienteari arreta osoa eta egokia ematen zaiola bermatzeko.

Osakidetza Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren Estatutuak ezartzeari buruzko azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuko 4.2 artikulua ezartzen duenez, Ente Publikoari atxikitako baliabideak berrantolatu ahal izango dira, lehendik diren zerbitzu-erakundeak aldatu, batu edo bereiziz; Ente Publikoaren Administrazio Kontseiluaren erabakiz hartu ahal izango dira neurri horiek, betiere Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren Legearen 22.2 artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Orain arte adierazitakoa aplikatzearen, hauxe da erabaki honen helburua: ildo estrategikoetan zehaztutako ekintzak gauzatzea, zerbitzu-erakunde bakarrean integratuz arreta modalitate biak (lehen mailakoa eta espezializatua); hartarako, aipatu erakunde sanitario integratuak eratuz.

Erakunde Sanitario Integratua honako ildo honetatik abiatzen da: atentzioaren erdigunetzat hartzea paziente-erabiltzaileak, aipatutakoek — euren eremu geografikoaren barruan— osasun-sistema erabili ahal dezaten; hartarako, sistemako arreta-maila ezberdinen arteko koordinazioa, kolaborazioa eta integrazioa gauzatuz; guztiarekin ere, arreta pertsonalizatuagoa errazteko eta osasungintzako emaitza hobekak izateko. Horren guztiaren helburua da pertsonak erdigunean jarriko dituen eta biztanleei zuzendutako ekintzak jasoko dituen osasun-sistema definitzea, erakunde sanitario integratu bakoitzak esleituta daukan biztanleriaren osasunaren gaineko erantzukizuneko ikuspegia kontuan izanda.

Eredu hori Gipuzkoako Osasun Barrutian hasi zen, Bidasoako Erakunde Sanitario Integratuaren hasierako esperientziarekin; ondoren, beste erakunde sanitario integratu hauekin garatu zen: Debagoiena, Debabarrena eta Goierri-Urola Garaia. Bidasoako Erakunde Sanitario Integratua sortzeko

erabakian adierazi zenez, erakunde-eredu hori, aldi batez funtzionatzen egon ostean, Osakidetza Administrazio Kontseiluak aztertu eta ebaluatuko du, ente publikoa osatzen duten erakunde guztietara hedatu baino lehen.

Esperientzia horren ostean, eta prozesuen eraginkortasunean eta efizientzian lortutako emaitzak aztertu eta ebaluatu ondoren, eredu hori Bizkaiko Osasun Barrutira hedatu zen 2014an. Horrenbestez, hiru erakunde sanitario integratu sortu ziren: Bilbo-Basurtu, Barrualde-Galdakao eta Barakaldo-Sestao.

Hala, 2014. urtean eta integrazioaren ostean erakundeon ikuspegi globala emango digun prozesuen azterketarekin jarraitzeko eta bai emaitzak bai lortu nahi den planteamendu poblazionalarekiko emaitza horien egokitzapena ebaluatu ahal izateko, bada, programa-kontratu bat sartu da, zehazki, Osasun Sailak Osakidetza zerbitzu-erakundeetariko bakoitzarekin sinatutakoa, integrazioari lotutako alderdiei dagokienez, zeren ikusi baita ezen –aipatu programa-kontraturako erreferentziako markoan– funtsezko elementua dela atentzio integratua.

Ildo horretan, besteak beste, ondokoak ponderatu eta ebaluatzeko adierazleak identifikatu dira: arreta integratuaren araberako emaitzak, erakundeak egin ahal izan dituen ekintzak eta ikuspegia balioetsiz bai prozesuaren ikuspegitik eta egiturarenetik; betiere, arreta integratuaren testuinguruan ikuspegi poblazionala bideratzen badute eta mailen arteko integrazio asistentzial handiagoa sustatu. D Amour galde-sortaren bitartez profesionalen arteko integrazio- eta kolaborazio-maila neurtzea aurreikusten da.

Gorago azaldutakoak kontuan izanik, Gipuzkoako Osasun Barrutian, “Donostialdea” izeneko Erakunde Sanitario Integratua sortzea aurreikusi da, eta hartara bilduko dira Donostia Unibertsitate Ospitaleko Zerbitzuen Erakundeari gaur arte atxikita dauden baliabideak; hortaz, erakunde hori bertan behera geratuko da eta haren baliabideak, eskubideak eta obligazioak erakunde sanitario integratua igaro. Halaber, erakunde sanitario integratu berrira sartzen dira haren lehen mailako arretarako unitateak —egun Gipuzkoa Eskualderi atxikita— , eta euren baliabideak, eskubideak eta obligazioak erakunde berrira igaroko dira.

Bestalde, jarduteko dinamika horri jarraituz eta arreta integratuaren eredu berriaren estrategia inspiratzen duen ikuspegi poblazionalari erantzunez, erabaki honen bitartez “Tolosaldea” Erakunde Sanitario Integratua eratzen da, bere erreferentziako eremuan lehen mailako arretarako unitateekin –egun Gipuzkoa Eskualdeari atxikita daudenekin– osatuko da, eta haien baliabideak, eskubideak eta obligazioak erakunde berrira pasako dira, eta Tolosako anbulatorioko arreta espezializatu ez-fakultatiboaren egungo egitura ere erakunde berrian integratuko da.

“Donostialdea” Erakunde Sanitario Integratuko pertsonal fakultatiboak gauzatuko du anbulatorioko arreta espezializatu fakultatiboa, eta

erreferentziako eremu poblazionalen kokatutako ospitale itunpekoari dagozkion zerbitzuek emango dute ospitaleko asistentzia; betiere bat etorrita ospitale horrek eta EAEko Osasun Sailak formalizatutako itunean ezarritako zehaztapenekin.

Azken batean, "Tolosaldea" Erakunde Sanitario Integratua eratzeko erabilitako ikuspuntua hauxe izan da: euskal osasun-sistemako gainontzeko erakunde sanitario integratueterako erabili dena. Hau da, geografikoki definitu daitekeen biztanleria du esleiturik, eta biztanle horien osasunaren ardura du; eta horrek zera dakar: gainontzeko erakundeen antzeko zerbitzu-kartera izan beharra, zeinaren finantzaketa euskal osasun-sistemari baitagokio.

Ildo horretan, honako jarduerak burutuko ditu "Tolosaldea" Erakunde Sanitario Integratuak:

- EAGko eta lehen mailako arretarako baliabide sanitarioak kudeatzea, barne direlarik erradiologia eta errehabilitazioa (fisioterapia).
- Osasun Sailaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzak "Donostialdea" Erakunde Sanitario Integratuarekin formalizatutako programakontraturen bitartez, anbulatorioko espezialitate medikoak eta bai erradiologia, errehabilitazioa eta tokoginekologia ere.
- Osasun Sailaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzak egiten duen itunaren bitartez, anbulatorio-kontsulta-zerbitzuak, kirurgiaren arloko espezialitatekoak direnak; proba osagarriak, eta Asuncion Klinikarekin etxeko ospitaleratzea.
- Eta Gipuzkoako gainontzeko erakundeek bezala, erreferentziazko ospitale tertziariotzat dauka "Donostialdea" ESIko Donostia Unibertsitate Ospitalea.

Logika bikoitzaz planifikatutako eredua da:

1. Logika asistentziala, zeinetan honako hauek sartzen diren: anbulatorioko espezialitate medikoak eta lehen mailako arretako zerbitzu guztiak (arreta integraturako oinarrizko nukleo direnak), eta elementu horiei honako hau gehitu behar zaie,
2. Eskualde geografikoak eskura dauden egitura sanitarioak aprobetxatzeko logika; izan ere, haien artean dira honako hauek: dispositibo asistentziala, Asuncion Klinika, zeinak posible egiten baititu, eskualdean bertan, ospitaleratzeak, eta espezialitate medikuen araberako arreta.

Honako hauen artean banatuko dira Gipuzkoa Eskualdeak —desagertua jada— kudeatutako eta administratutako giza baliabideak, baliabide materialak eta antolakundearen arlokoak: erabaki honen bitartez sortzen diren erakunde sanitario integratu bien artean, betiere bat etorriz aplikatzekoak izanik indarrean dauden arauetan ezarritako prozesuekin.

Hori guztia dela eta, desagertu egingo da Gipuzkoa Eskualdeko zerbitzuen erakundea, eta "Donostialdea" eta "Tolosaldea" Erakunde Sanitario Integratuen artean banatuko dira bere baliabideak, eskubideak eta obligazioak, goragoko paragrafoetan zehaztutakoaren arabera.

Hori guztia dela-eta, Osakidetzako Administrazio Kontseiluak honako hau

### **ERABAKI DU:**

**Lehenengoa**.- Gipuzkoa Eskualdeko eta Donostia Unibertsitate Ospitaleko zerbitzu-erakundeak bertan behera uztea.

**Bigarrena**.- Bizkaiko Osasun Barrutiaren lurralde-eremuan bi erakunde sanitario integratu hauek sortzea: "Donostialdea" eta "Tolosaldea".

**Hirugarrena**.- Beherago azaldutako zehaztapenekin bat etorritz, erabaki honen bitartez sortzen diren erakunde sanitario integratuak konfiguratzeko:

1. Donostia Unibertsitate Ospitaleko Zerbitzuen Erakundeko giza baliabideak, baliabide materialak eta antolaketaren arlokoak—erakundea bertan behera dago jada—, eta bai jarraian zehazten diren Lehen mailako arretarako unitateetakoak ere; hala, "Donostialdea" Erakunde Sanitario Integratura igaroko dira.

**Integratuko diren lehen mailako arretarako unitateak:**

- Altza-Roteta
- Amara Berri
- Amara erdialdea
- Bidebieta
- Egia
- Gros
- Hernani-Urnieta-Astigarraga
- Intxaurreondo
- Lasarte-Usurbil
- Loiola
- Oiartzun
- Ondarreta
- Parte Zaharra
- Pasai Antxo
- Lezo-Pasai Donibane
- Pasai San Pedro
- Errenteria Beraun
- Iztietia, Errenteria
- Zarautz - Oriu - Aia
- Zumaia - Zestoa - Getaria
- EAG Donostia

- Martutene (PK)
- 2. "Donostialdea" Erakunde Sanitario Integratuko zentro asistentzial gisa integratzen da Donostia Unibertsitate Ospitalea, beren horretan eutsita Unibertsitate Ospitale izaerari eta orain arteko izenari, betiere Administrazio Kontseiluaren 2011ko uztailaren 22ko Erabakiko aurreikuspenak aplikagarri izan daitezen (erabaki hori, 2009ko irailaren 30eko EHAAn argitaratu zen).
- 3. Beherago zehazten diren lehen mailako arretarako unitateen giza baliabideak, baliabide materiak eta antolaketaren arlokoak eta bai Tolosako anbulatorio-arreta espezializatua ez-fakultatiboaren egiturari dagozkionak ere, "Tolosaldea" Erakunde Sanitario Integratua osatzera pasako dira.

Integratuko diren lehen mailako arretarako unitateak:

- Alegia
- Andoain
- Ibarra
- Tolosa
- Villabona

Arlo medikoko espezialitateetako arreta emango du Osakidetza, eta bai erradiologiakoa eta tokoginekologiakoa ere. Ildo horretan, Osakidetzaren baliabideekin, eta "Donostialdea" ESIko pertsonal fakultatibo espezialistaren zerbitzuak kontratatuz, Osasun Sailaren Gipuzkoako Osasun Sailaren Lurralde Ordezkaritzak "Donostialdea" ESirekin formalizatutako programa-kontratuaren bitartez, anbulatorioko espezialitate hauen arlokoa kontsultak emango dira:

- Pneumologia
- Neurologia
- Dermatologia
- Endokrinologia
- Digestio-zerbitzua
- Endokrinologia
- Erradiologia
- Errehabilitazioa (Ibarra), eta
- Tokoginekologia

Arreta espezializatuaren zerbitzu-kartera hau Asuncion Klinikarekin itundutako zerbitzuekin osotuko da; betiere, Osasun Saileko Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzak aipatu klinikarekin formalizatzen duen itunean ezarritako zehaztapenekin bat etorriz.

Era horretan, eta erabaki honen aurreko azalpenean zehaztu denez, "Tolosaldea" Erakunde Sanitario Integratua konfiguratzeko, euskal

osasun-sistemako beste erakunde sanitario integratueterako erabilitako irizpide berberak erabili dira.

4. Honako hauen artean banatuko dira Gipuzkoa Eskualdeak —desagertua jada— kudeatutako eta administratutako giza baliabideak, baliabide materialak eta antolakundearen arlokoak: erabaki honen bitartez sortzen diren erakunde sanitario integratu bien artean, betiere bat etorrita aplikatzekoak izanik indarrean dauden arauetan ezarritako prozesuekin.

**Laugarrena.**- “Donostialdea” eta “Tolosaldea” erakunde sanitario integratueterako ondoko antolakuntza-egitura ezartzea:

- Zuzendaritza- eta kudeaketa-organoak:
  - a) Zuzendari gerentea.
  - b) Gerentziako zuzendaritza-taldea.
  - c) Zuzendaritza-kontseilua.
- Partaidetza-organoak
  - a) Kontseilu Teknikoa.

**Bosgarrena.**- Erakunde sanitario integratu bakoitzaren burua zuzendari gerentea izango da. Zuzendaritzako kargutzat hartzen da, honako hauetan ezarritakoari lotuta: Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren Legeko 27. artikuluko erregimena eta Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak Araitzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legean xedatutakoa.

Osakidetzaren Estatutuetao 15.1 artikulua ematen dizkion aginpideak dagozko zuzendari gerenteari; azaroaren 11ko 255/1997 Dekretu bidez onartu ziren estatutu horiek.

**Seigarrena.**- Bere zereginak egiteko, zuzendari gerenteak zuzendaritza-taldearen laguntza izan ahalko du. Zuzendaritza-taldeko kideak honako hauetan ezarritakoari lotuta egongo dira: Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren Legeko 27. artikuluko erregimena eta Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak Araitzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legean xedatutakoa.

Zuzendari gerenteak eskuordetzan ematen dizkien funtzioak eta atazak beren gain hartu ahal izango dituzte zuzendaritzako kargudunek; eta, betiere, euren mendeko unitate eta zerbitzuen jardueren gaineko gainbegiraketa eta segimendua egingo dituzte.

**Zazpigarrena.**- Erakunde bakoitzari dagokion sailkapen-taldearen arabera eta Osakidetzaren Estatutuetao 15.2 artikuluan jasotako aurreikuspenekin bat etorritz, zuzendaritza-taldea elkarlanean arituko da gerentziarekin erakunde sanitario integratuen kudeaketan, eta zuzendaritza-talde hori honako hauek osatuko dute:



### “Donostialdea” Erakunde Sanitario Integratua

- Integrazio Asistentzialerako Zuzendaritza
- Medikuzuzendaritza
- Erizaintzako Zuzendaritza
- Ekonomia eta Finantzako Zuzendaritza.
- Langileen Zuzendaritza

### “Tolosaldea” Erakunde Sanitario Integratua

- Kudeaketako Zuzendaritza Teknikoa

1. Hala erabaki den erakundeetan, Integrazio Asistentzialeko Zuzendaritza arduratuko da oro har ondokoen arteko integrazio-mekanismoak garatzeaz: profesionalak, zerbitzu asistentzialak eta eremu sanitarioan eskumenak dituzten beste zerbitzu komunitario batzuk. Eta, hartarako, Zuzendaritza Medikoarekin eta Erizaintzako Zuzendaritzarekin bereziki koordinatuz eta gainontzeko zuzendaritzekin orokorrean koordinatuz, beharrezkoa bada, honako hauetaz arduratuko da:

- Sistemaren eraginkortasun handiena lortzeko, mailen artean beharrezko diren programak garatzeaz. Asistentzia-maila bien artean prozesu integratuak garatzeaz, kudeaketa kliniko erabiliz kudeaketa-lanabes gisa.
- Gaixotasunei aurre egiteko eta osasuna sustatzeko jarduketan garapena bermatzeaz, eta lehen mailako arretan ebazpen-gaitasuna sustatzeaz. Osasun publikoko egiturekin koordinatuz, osasunerako egiten diren prebentzio-, sustapen- eta heziketa-jarduketak bultzatzeaz.
- Erakunde sanitario integratuko profesional sanitarioak koordinatzeaz, asistentzia integratua eskaintzen dela ziurtatzeko; betiere, ikuspuntu jarraitu eta globaletik asistentziari ekiteko, asistentzia-prozesu berriak eta arreta-zirkuitu berriak definituz.
- Orientazioa emateaz ondoko hauek ezartzeko: erabaki klinikoak hartzeko praktikarako gidak eta bideak, eta praktika klinikoan aldagarritasuna txikitzeko jarduketa- eta deribazio-protokoloak, betiere prozedura diagnostikoetan eta terapeutikoetan bikoiztasunak baztertuz.
- Asistentzia-zerbitzuen eta zerbitzu komunitarioen eta soziosanitarioen artean, bitartekari- eta integrazio-agentea gisa jarduteaz. Hartarako, ondoren zehaztutakoekin ondo koordinatzeko beharrezko mekanismoak ezarriz: osasun publikoko baliabideak, zerbitzu sozialak, eta eremu sanitarioan eta soziosanitarioan eskumenak dituzten erakundeak.
- Eremu egokian, partaidetza soziala eta herritarrena zuzendu, bultzatu eta koordinatzeaz, hain justu ere komunikaziorako kanalak hobetuz;

erabakiak hartzeko, herritarren prestakuntza-ekintzak proposatuz, eta erantzukidetasuna eta osasunaren autogestio eraginkorra bultzatuz.

- Gerentziak eskuordetzan emandako gainerako funtzioak.

2. Zuzendaritza Medikoa, zeinari honako ohiko funtzio hauek dagozkion:

- Erakunde Sanitario Integratuaren Kontseilu Teknikoaren buru izatea.
- Jardueren segimendua, emandako zerbitzuen kalitate-mailaren ebaluazioa eta horiek hobetzeko neurri egokiak proposatzea.
- Medikuntza- eta asistentzia-jarduerak zuzendu, koordinatu eta ebaluatzea.
- Pertsonal fakultatiboaren irakaskuntza- eta ikerketa-jarduerak sustatu eta ikuskatzea.
- Erakunde sanitarioaren zerbitzuei atxikitako baliabide klinikoek kudeaketa egitea eta jarraibideak ezartzea.
- Gerentea ordeztzea, baldin eta kanpoan edo gaixorik bada, edota lanpostua hutsik badago.
- Gerentziak eskuordetzan emandako gainerako funtzioak.

3. Erizaintzako Zuzendaritza, zeinari honako ohiko funtzio hauek dagozkion:

- Erakunde Sanitario Integratuaren erizaintzako jarduerak zuzendu, koordinatu eta ebaluatzea.
- Erizaintzako jardueren jarraipena, emandako zerbitzuen kalitate-mailaren ebaluazioa eta hobekuntza-neurri egokiak proposatzea.
- Erizaintzako pertsonalaren irakaskuntza- eta ikerketa-jarduerak sustatzea eta ikuskatzea.
- Gerentziak eskuordetzan emandako gainerako funtzioak.

4. Ekonomia eta Finantza Zuzendaritzak eta Pertsonaleko Zuzendaritzak honako funtzio hauek baliatuko dituzte: Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legetik, Osakidetzaren Estatutuak onartzeko azaroaren 11ko 255/1997 Dekretutik eta aplikatzeko diren eta bat datozen gainontzeko arauetatik ondorioztatzen direnak, eta, halaber, Gerentziak eskuordetzan ematen dizkienak.

**Zortzigarrena.**- Erakunde sanitario integratuko Zuzendaritza Kontseilua kide anitzeko organoa da, eta Gerentziarekin elkarlanean dihardu kudeaketa-lanetan, ondoko arloetan proposamenak eginez eta aholkularitza-funtzioak beteaz:

- Plan Estrategikoa egitea, gerenteak onar dezan, eta, horrekin batera, planaren jarraipena egitea.
- Urteko Kudeaketa Plana egitea, gerenteak onar dezan, eta plan horren jarraipena egitea.

- Programa-kontratua negoziatzeko estrategiak diseinatzea.
- Urteko memoria egitea, gerenteak onar dezan.
- Kontseilu Teknikotik datozen proposamenak aztertu eta bultzatzea.
- Kudeaketa klinikorako unitateak antolatzea.

Ente Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak erabakiko du Zuzendaritza Kontseiluaren osaketa, erakunde sanitario integratuaren ezaugarri espezifikoak kontuan hartuz betiere. Eta horren kideen artean izango dira honako hauek: Zuzendaritza Taldea, erabakitzen diren unitateetako buruak, eta, gutxienez, Kontseilu Teknikoaren ordezkari den bokal bat.

**Bederatzigarrena.**- Erakunde sanitario integratuko profesionalen partaidetza- eta aholkularitza-organoa da Kontseilu Teknikoa. Eta honako hauek izango dira bertan: lehendakari bat, eta dagokien erakundearen zerbitzuan diharduten profesionalen artean hautatutako 12 bokal.

Kontseilu Teknikoan honako hauek dira partaide: Zuzendaritza Medikoa, Integrazio Asistentzialeko Zuzendaritza, zerbitzu-erakundearen zuzendaritza-egitura hori zehaztu denean, eta Erizaintzako Zuzendaritza; Presidentzia Zuzendaritza Medikoari egokituko zaio eta Idazkaritza Integrazio Asistentzialeko Zuzendaritzari, beharrezkoa bada. Integrazio Asistentzialeko Zuzendaritzarik ez bada, Zuzendaritza Medikoak bereganatuko ditu bi funtzio horiek. Gainerako bokalak lehen mailako arretako profesionalen eta arreta espezializatuko profesionalen artean banatuko dira, erdibana. Kontseilu Teknikoa osatuko duten kideen artean honako proportzioa gordeko da: gutxi gorabehera % 60 fakultatiboak izango dira, eta % 40 erizaintzako langileak.

Erakundeko Gerentziak zehaztuko du zein eremu edo unitatetan izendatuko diren bokalak eta zer prozedura erabiliko den horretarako.

Kontseilu Teknikoaren funtzioak erakundearen Plan Estrategikoan aurreikuspenen barruan zehaztuko dira, eta honako hauek dira:

- Unitateen antolakuntza eta funtzionamendua hobetzeari eta asistentzia-kalitateari buruzko politikak, proposamenak eta gomendioak egitea.
- Asistentzia-, diagnosi- eta terapeutika-estrategia berriak baloratzea.
- Ikerketa, irakaskuntza eta prestakuntzaren alorretako jardun-ildoak proposatzea.
- Kudeaketa klinikoko unitateak ezartzeko proposamena egitea.
- Kontseilu Teknikoaren ordezkartzan Zuzendaritza Kontseiluko parte izango diren kideak izendatzea.

**Hamargarrena.**- "Tolosaldea" ESIren egitura eta konfigurazioa ikusirik, eta eremu soziosanitarioan harremanak eta jarduerak koordinatzearen eta bai haren gaineko segimendua eta ebaluazioa egiteko eta hura hobetzeko neurri egokiak proposatzeko, harik Osakidetza zerbitzu-erakundeetan

parte hartzeko foro berriak garatu arte, Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiari baimena ematen zaio honako honetarako: Gerentziako Zuzendaritzak proposaturik, "Tolosaldea" ESIren parte hartzeko organo gisa, Batzorde Soziosanitarioa eta Gizarte Partaidetzako Kontseilua eratzea.

**Hamaikagarrena**.- Erabaki honek indarra hartzen duenetik aurrera, kendu diren zerbitzu-erakundeekin Osasun Sailak zituen harreman ekonomikoak, finantzarioak eta programatikoak ondoko hauenak konfiguratzera pasako dira: sortu diren erakunde sanitario integratu berrienak, hain justu ere.

Erabaki honen bitartez eraten diren erakunde sanitario integratuek subrogatu egiten dituzte kendutako edo aldatutako eta erakunde horietan integratzen diren zerbitzu-erakundeetako unitateak, zehazki, ondoko arloetako eskubide eta obligazioei dagokienez: ekonomikoa, lanekoa, kontratuena, ondarearena eta beste edozeinetakoa.

**Hamabigarrena**.- Osakidetza ente publikoko zuzendari nagusiari ahalmenak ematen zaizkio, ebazpen bidez, honako hau egiteko: kentzen diren zerbitzu-erakundetan, 2015eko urtarrilaren 1ean ziren zerbitzu eta unitate guztietako langileen plantillak erakunde sanitario integratu berrietara pasatzeko; eta, halaber, ahalmenak ematen zaizkio beharrezko aurrekontu-egokitzapenak egiteko.

**Hamahirugarrena**.-

1. "Donostialdea" Erakunde Sanitario Integratu berria erakunde sanitarioen sailkapeneko 1. taldean sartuko da, betiere Administrazio Kontseiluaren 2013ko uztailaren 18ko Erabaki bidez zuzendaritzako karguentzat onartutako ordainketa-ereduarekin bat etorriz.
2. "Tolosaldea" erakunde sanitario integratu berria erakunde sanitarioen sailkapeneko 4. taldean sartuko da, betiere Administrazio Kontseiluaren 2013ko uztailaren 18ko Erabaki bidez zuzendaritzako karguentzat onartutako ordainketa-ereduarekin bat etorriz.

**Hamalauugarrena**.- Aldi baterako arauak.

"Donostialdea" eta "Tolosaldea" erakunde sanitario integratuak eratuak, eta harik eta erakunde horietako zuzendaritza-postuak arauz bete arte, postu horiek behin-behinean beteko dira, erakundearen funtzionamendu egokia eta asistentziaren jarraipena bermatzeko.

**Hamabosgarrena**.- Erakunde sanitario integratuen egitura eta funtzionamendua oro har erregulatzeko arauzko xedapen geroztikoetan ezarritakoaren aurka egiten ez duten neurrian, erabaki honetan jasotako aurreikuspenei eutsi egingo zaie, zehazki, euren zehaztapen guztiei.

**Hamaseigarrena**.- Erabaki honek 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera izango du indarra.

Aurrekontuei, behin-behineko egoera finantzarioei eta informazio ekonomiko-finantzarioari dagokienez, 2015eko urtarrilaren 1etik harako ondorioen arabera egokituko da bertan behera uzten den zerbitzu-erakunde bakoitza erakunde sanitario integratu berrietara.

**ERABAKIA, 2014ko ABENDUAREN 30ekoa, OSAKIDETZAREN ADMINISTRAZIO KONTSEILUARENA. HONEN BIDEZ, BIZKAIKO OSASUN BARRUTIAN, BI ZERBITZU ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATU SORTZEN DIRA: "Ezkerraldea Enkarterri Gurutzeta", ORAIN ARTE ZEUDEN EZKERRALDEA-ENKARTERRI ESKUALDEA ETA GURUTZETAKO UNIBERTSITATE OSPITALEA ZERBITZU ERAKUNDEAK INTEGRATUKO DITUENA, ETA "URIBE", ORAIN ARTEKO URIBEKO ESKUALDEA ZERBITZU ERAKUNDEA ETA URDULIZKO ALFREDO ESPINOSA OSPITALEA INTEGRATUKO DITUENA.**

Osasuneko sailburuak "X. Legegintzaldirako Osasun Politiken Lerro Nagusiak" aurkeztu zituen Eusko Legebiltzarrean, eta lerro horiekin bat etorritik, Osakidetza Euskal Osasun Zerbitzuak zehaztu egin ditu 2013-2016 epealdirako Ildo Estrategikoak eta Ekintza Planak. Ildo estrategiko horiek zenbait helburu eta ekintza definitzen dituzte, gauzatzeko hedatu beharrekoak, eta aldaketak ekarriko dituzte, integrazioa izanik haien erdigunea.

Prozesu asistentzialak integratuz, pazienteen osasuna hobetzeko diren osasun zainketak antolatzeke printzipio bat bada arreta integratua.

Azken batean, sistema sanitarioaren maileri begira sinergiak aprobetxatzea eta koherentzia lortzea dira helburuak, ezaugarri hauek izan ditzaten osasun-zainketek: zatiketa txikiagoa, koordinazio handiagoa, eragingarritasun handiagoa eta kalitate hobea.

Gure kasuan, arreta integratua bideratzeko, erakunde sanitario integratuen eredia hedatzeko apustua egiten dugu, bai, halaber, mugape geografiko jakin baten barruan lehen mailako arretako zentroak eta haien erreferentziako ospitalea elkartzeko apustua ere.

X. Legegintzaldirako Osasun Politiken Ildo Nagusien barruan, 1. ildo estrategikoak, batetik, pertsonak hartzen ditu sistema sanitarioaren ardatz nagusitzat; bestetik, "pazienteentzako zerbitzua hobetzeko, sistema sanitarioaren kalitatea hobetzea" du helburu; eta, horretarako, ikuspuntu integraleko prozesu asistentziala garatzea aipatzen da, pazienteak izanik erdigunea; bestalde, prozesu horretan ziurtatu egiten da bai arretaren jarraipena eta bai arreta pertsonalizatua ere. Era berean, 2. ildo estrategikoak honako hauek hartzen ditu kontuan: arreta-maila ezberdinen arteko integrazio asistentziala, hain justu ere Euskadiko biztanleria

zahartzeari erantzuna emateko, eta, ondorioz, gaixotasun kronikoak eta dependentzia areagotzea.

Hortaz, arreta integratua funtsezko printzipioa da zainketa sanitarioen antolaketan; eta, zentzu horretan, beharrezkoa da eremu asistentzialek osatzen dituzten erakundeak eta zerbitzuak integratzen jarraitzea, hartara erakunde integratuak osatzen dituzten egitura bateratuak sortuta, betiere pazienteari arreta osoa eta egokia ematen zaiola bermatzeko.

Osakidetza Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren Estatutuak ezartzeari buruzko azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuko 4.2 artikulua ezartzen duenez, Ente Publikoari atxikitako baliabideak berrantolatu ahal izango dira, lehendik diren zerbitzu-erakundeak aldatu, batu edo bereiziz; Ente Publikoaren Administrazio Kontseiluaren erabakiz hartu ahal izango dira neurri horiek, betiere Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren Legearen 22.2 artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Orain arte adierazitakoa aplikatzearen, hauxe da erabaki honen helburua: ildo estrategikoetan zehaztutako ekintzak gauzatzea, zerbitzu-erakunde bakarrean integratuz arreta modalitate biak (lehen mailakoa eta espezializatua), aipatu erakunde sanitario integratuak eratuz, horretarako.

Erakunde Sanitario Integratua honako ildo honetatik abiatzen da: atentzioaren erdigunetzat hartzea paziente-erabiltzaileak, aipatutakoek – euren eremu geografikoaren barruan– osasun-sistema erabili ahal dezaten; hartarako, sistemako arreta-maila ezberdinen arteko koordinazioa, kolaborazioa eta integrazioa gauzatuz; guztiarekin ere, arreta pertsonalatuagoa errazteko eta osasungintzako emaitza hobekak izateko. Horren guztiaren helburua da pertsonak erdigunean jarriko dituen eta biztanleei zuzendutako ekintzak jasoko dituen osasun-sistema definitzea, erakunde sanitario integratu bakoitzak esleituta daukan biztanleriaren osasunaren gaineko erantzukizuneko ikuspegia kontuan izanda.

Eredu hori Gipuzkoako Osasun Barrutian hasi zen, Bidasoako Erakunde Sanitario Integratuaren hasierako esperientziarekin; ondoren, beste erakunde sanitario integratu hauekin jarraitu zen: Debagoiena, Debabarrena eta Goierri-Urola Garaia. Bidasoako Erakunde Sanitario Integratua sortzeko erabakian adierazi zenez, erakunde-eredu hori, aldi batez funtzionatzen egon ostean, Osakidetzako Administrazio Kontseiluak aztertu eta ebaluatuko du, ente publikoa osatzen duten erakunde guztietara hedatu baino lehen.

Esperientzia horren ostean, eta prozesuen eraginkortasunean eta efizientzian lortutako emaitzak aztertu eta ebaluatu ondoren, erredu hori Bizkaiko Osasun Barrutira hedatu zen 2014an. Horrenbestez, hiru erakunde sanitario integratu sortu ziren: Bilbo-Basurtu, Barrualde-Galdakao eta Barakaldo-Sestao.

Hala, 2014. urtean eta integrazioaren ostean erakundeon ikuspegi globala emango digun prozesuen azterketarekin jarraitzeko eta bai emaitzak bai

lortu nahi den planteamendu poblazionalarekiko emaitza horien egokitzapena ebaluatu ahal izateko, bada, programa-kontratu bat sartu da, zehazki, Osasun Sailak Osakidetzako zerbitzu-erakundeetariko bakoitzarekin sinatutakoa, integrazioari lotutako alderdiei dagokienez, zeren ikusi baita ezen –aipatu programa-kontraturako erreferentziako markoan– funtsezko elementua dela atentzio integratua.

Ildo horretan, besteak beste, ondokoak ponderatu eta ebaluatzeko adierazleak identifikatu dira: arreta integratuaren araberako emaitzak, erakundeak egin ahal izan dituen ekintzak eta ikuspegia balioetsiz bai prozesuaren ikuspegitik eta egiturarenetik; betiere, arreta integratuaren testuinguruan ikuspegi poblazionala bideratzen badute eta mailen arteko integrazio asistentzial handiagoa sustatu. D Amour galde-sortaren bitartez profesionalen arteko integrazio- eta kolaborazio-maila neurtzea aurreikusten da.

Gorago azaldutakoak kontuan izanik, Bizkaiko Osasun Barrutian “Ezkerraldea Enkarterri Gurutzeta” izeneko Erakunde Sanitario Integratua sortzen da, zeinetan integratzen baitira orain arte Ezkerraldea-Enkarterri Eskualdea eta Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea zerbitzu-erakundeei atxikita egon diren baliabideak; hortaz, erakunde horiek kendu egiten dira eta beren baliabideak, eskubideak eta obligazioak erakunde sanitario integratu berrira pasatzen dira.

Bestalde, jarduteko dinamika horri jarraituz, erabaki honen bitartez, “Uribe” Erakunde Sanitario Integratua eratuko da. Ondorioz, gaur egungo Uribeko Eskualdea zerbitzu-erakundea bertan behera geratuko da, eta horren baliabideak, eskubideak eta obligazioak erakunde berrira igaroko dira. Eratzeko modu hori aldeztu aurrekoa urratsa da, ospitale-arreta espezializatuko mailarekin guztiz integratu baino lehen. Izan ere, Urdulizko Alfredo Espinosa ospitaleak izango duen konfigurazioaren ostean, erakunde berrian integratzen den lehen mailako arretako eskualdeak esleituta daukan erreferentziazko biztanleria-esparru bera hartuko du; horrenbestez, erabat osatuko du “Uribe” Erakunde Sanitario Integratua, bere erreferentziazko ospitalearekin.

Zerbitzu-erakunde integratu berri hauek sortzearen ondorioz, zuzendaritzako karguen zerrendan aldaketa bat gertatu da (116 lanpostutik 107 lanpostura gutxitu da) eta 9 lanposturen gutxitze horrek **511.140 €** aurrezteka ekarriko du.

Hori guztia dela-eta, Osakidetzako Administrazio Kontseiluak honako hau

### **ERABAKI DU:**

**Lehenengoa.**- Ezkerraldea-Enkarterri Eskualdea, Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea eta Uribe Eskualdea zerbitzu-erakundeak bertan behera uztea.

**Bigarrena.**- Bizkaiko Osasun Barrutiaren lurralde-eremuan bi erakunde sanitario integratu hauek sortzea: “Ezkerraldea Enkarterri Gurutzeta” eta “Uribe”.

**Hirugarrena.**- Beherago azaldutako zehaztapenekin bat etorritz, erabaki honen bitartez sortzen diren erakunde sanitario integratuak konfiguratzeko:

1. Ezkerraldea-Enkarterri Eskualdea eta Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea lehengo zerbitzu-erakundeetako giza baliabideak, baliabide materialak eta antolakuntza-baliabideak osorik erabiltzea “Ezkerraldea Enkarterri Gurutzeta” erakunde sanitario integratua eratzeko.
2. Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea “Ezkerraldea Enkarterri Gurutzeta” Erakunde Sanitario Integratura pasatzen da, , beren horretan eutsita Unibertsitate Ospitale izaerari eta orain arteko izenari, betiere Administrazio Kontseiluaren 2011ko uztailaren 22ko Erabakiko aurreikuspenak aplikagarri izan daitezzen (erabaki hori, 2009ko irailaren 30eko EHAAn argitaratu zen).
3. Uribeko Eskualdeko lehen mailako arretarako lehengo zerbitzu-erakundeko giza baliabideak, baliabide materialak eta antolakuntza-baliabideak osorik erabiltzea “Uribe” Erakunde Sanitario Integratua eratzeko.

**Laugarrena.**- “Ezkerraldea Enkarterri Gurutzeta” eta “Uribe” erakunde sanitario integratuetarako ondoko antolakuntza-egitura ezartzea:



- Zuzendaritza- eta kudeaketa-organoak:
  - a) Zuzendari gerentea.
  - b) Gerentziako zuzendaritza-taldea.
  - c) Zuzendaritza-kontseilua.
- Partaidetza-organoak
  - a) Kontseilu Teknikoa.

**Bosgarrena.**- Erakunde sanitario integratu bakoitzaren burua zuzendari gerentea izango da. Zuzendaritzako kargutzat hartzen da, honako hauetan ezarritakoari lotuta: Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren Legeko 27. artikuluko erregimena eta Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak Arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legean xedatutakoa.

Osakidetzaren Estatutueta 15.1 artikulua ematen dizkion aginpideak dagozkie zuzendari gerenteari; azaroaren 11ko 255/1997 Dekretu bidez onartu ziren estatutu horiek.

**Seigarrena.**- Bere zereginak egiteko, zuzendari gerenteak zuzendaritza-taldearen laguntza izan behar du. Zuzendaritza-taldeko kideak honako hauetan ezarritakoari lotuta egongo dira: Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren Legeko 27. artikuluko erregimena eta Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak Arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legean xedatutakoa.

Zuzendari gerenteak eskuordetzan ematen dizkien funtzioak eta atazak beren gain hartu ahal izango dituzte zuzendaritzako kargudunek; eta, betiere, euren mendeko unitate eta zerbitzuen jardueren gaineko gainbegiraketa eta segimendua egingo dituzte.

**Zazpigarrena.**- Erakunde bakoitzari dagokion sailkapen-taldearen arabera eta Osakidetzaren Estatutueta 15.2 artikuluan jasotako aurreikuspenekin bat etorritik, zuzendaritza-taldea elkarlanean arituko da gerentziarekin erakunde sanitario integratuen kudeaketan, eta zuzendaritza-talde hori honako hauek osatuko dute:

“Ezkerraldea Enkarterri Gurutzeta” Erakunde Sanitario Integratua

- Integrazio Asistentzialerako Zuzendaritza
- Medikuzuzendaritza
- Erizaintzako Zuzendaritza
- Ekonomia eta Finantzako Zuzendaritza
- Langileen Zuzendaritza

“Uribe” Erakunde Sanitario Integratua

- Medikuzuzendaritza
- Erizaintzako Zuzendaritza
- Kudeaketa Sanitarioko Zuzendaritza
- Langileen Zuzendaritza

1. Hala erabaki den erakundeetan, Integrazio Asistentzialeko Zuzendaritza arduratuko da oro har ondokoen arteko integrazio-mekanismoak garatzeaz: profesionalak, zerbitzu asistentzialak eta eremu sanitarioan eskumenak dituzten beste zerbitzu komunitario batzuk. Eta, hartarako, Zuzendaritza Medikoarekin eta Erizaintzako Zuzendaritzarekin bereziki koordinatuz eta gainontzeko zuzendaritzekin orokorrean koordinatuz, beharrezkoa bada, honako hauetaz arduratuko da:

- Sistemaren eraginkortasun handiena lortzeko, mailen artean beharrezko diren programak garatzeaz. Asistentzia-maila bien artean prozesu integratuak garatzeaz, kudeaketa kliniko erabiliz kudeaketa-lanabes gisa.
- Gaixotasunei aurre egiteko eta osasuna sustatzeko jarduketan garapena bermatzeaz, eta lehen mailako arretan ebazpen-gaitasuna sustatzea. Osasun publikoko egiturekin koordinatuz, osasunerako egiten diren prebentzio-, sustapen- eta heziketa-jarduketak bultzatzeaz.
- Erakunde sanitario integratuko profesional sanitarioak koordinatzeaz, asistentzia integratua eskaintzen dela ziurtatzeko; betiere, ikuspuntu jarraitu eta globaletik asistentziari ekiteko, asistentzia-prozesu berriak eta arreta-zirkuitu berriak definituz.
- Orientazioa emateaz ondoko hauek ezartzeko: erabaki klinikoak hartzeko praktikorako gidak eta bideak, eta praktika klinikoan aldagarritasuna txikitzeko jarduketa- eta deribazio-protokoloak, betiere prozedura diagnostikoetan eta terapeutikoetan bikoiztasunak baztertuz.
- Asistentzia-zerbitzuen eta zerbitzu komunitarioen eta soziosanitarioen artean, bitartekari- eta integrazio-agentea gisa jarduteaz. Hartarako, ondoren zehaztutakoekin ondo koordinatzeko beharrezko mekanismoak ezarriz: osasun publikoko baliabideak, zerbitzu sozialak, eta eremu sanitarioan eta soziosanitarioan eskumenak dituzten erakundeak.
- Eremu egokian, partaidetza soziala eta herritarrena zuzendu, bultzatu eta koordinatzeaz, hain justu ere komunikaziorako kanalak hobetuz; erabakiak hartzeko, herritarren prestakuntza-ekintzak proposatuz, eta erantzukidetasuna eta osasunaren autogestio eraginkorra bultzatuz.
- Gerentziak eskuordetzan emandako gainerako funtzioak.

2. Zuzendaritza Medikoa, zeinari honako ohiko funtzio hauek dagozkion:

- Erakunde Sanitario Integratuaren Kontseilu Teknikoaren buru izatea.
- Jardueren segimendua, emandako zerbitzuen kalitate-mailaren ebaluazioa eta zerbitzu horiek hobetzeko neurri egokiak proposatzea.
- Medikuntza- eta asistentzia-jarduerak zuzendu, koordinatu eta ebaluatzea.
- Pertsonal fakultatiboaren irakaskuntza- eta ikerketa-jarduerak sustatu eta ikuskatzea.
- Erakunde sanitarioaren zerbitzuei atxikitako baliabide klinikoek kudeaketa egitea eta jarraibideak ezartzea.
- Gerentea ordeztzea, baldin eta kanpoan edo gaixorik bada, edota lanpostua hutsik badago.
- Gerentziak eskuordetzan emandako gainerako funtzioak.

3. Erizaintzako Zuzendaritza, zeinari honako ohiko funtzio hauek dagozkion:

- Erakunde Sanitario Integratuaren erizaintzako jarduerak zuzendu, koordinatu eta ebaluatzea.
- Erizaintzako jardueren jarraipena, emandako zerbitzuen kalitate-mailaren ebaluazioa eta hobekuntza-neurri egokiak proposatzea.
- Erizaintzako pertsonalaren irakaskuntza- eta ikerketa-jarduerak sustatzea eta ikuskatzea.
- Gerentziak eskuordetzan emandako gainerako funtzioak.

4. Ekonomia eta Finantza Zuzendaritzak eta Pertsonaleko Zuzendaritzak honako funtzio hauek baliatuko dituzte: Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legetik, Osakidetzaren Estatutuak onartzeko azaroaren 11ko 255/1997 Dekretutik eta aplikatzeko diren eta bat datozen gainontzeko arauetatik ondorioztatzen direnak, eta, halaber, Gerentziak eskuordetzan ematen dizkienak.

**Zortzigarrena.**- Erakunde sanitario integratuko Zuzendaritza Kontseilua kide anitzeko organoa da, eta Gerentziarekin elkarlanean dihardu kudeaketa-lanetan, ondoko arloetan proposamenak eginez eta aholkularitza-funtzioak beteaz:

- Plan Estrategikoa egitea, gerenteak onar dezan, eta planaren jarraipena egitea.
- Urteko Kudeaketa Plana egitea, gerenteak onar dezan, eta plan horren jarraipena egitea ere.
- Programa-kontratua negoziatzeko estrategiak diseinatzea.
- Urteko memoria egitea, gerenteak onar dezan.
- Kontseilu Teknikotik datozen proposamenak aztertu eta bultzatzea.
- Kudeaketa klinikorako unitateak antolatzea.

Ente Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak erabakiko du Zuzendaritza Kontseiluaren osaketa, erakunde sanitario integratuaren ezaugarri espezifikoak kontuan hartuz betiere. Eta horren kideen artean izango dira honako hauek: Zuzendaritza Taldea, erabakitzen diren unitateetako buruak, eta, gutxienez, Kontseilu Teknikoaren ordezkari den bokal bat.

**Bederatzigarrena.**- Erakunde sanitario integratuko profesionalen parte hartze- eta aholkularitza-organoa da Kontseilu Teknikoa. Eta honako hauek izango dira bertan: lehendakari bat, eta dagokien erakundearen zerbitzuan diharduten profesionalen artean hautatutako 12 bokal.

Kontseilu Teknikoan honako hauek dira partaide: Zuzendaritza Medikoa, Integrazio Asistentzialeko Zuzendaritza, zerbitzu-erakundearen zuzendaritza-egitura hori zehaztu denean, eta Erizaintzako Zuzendaritza; Presidentzia Zuzendaritza Medikoari egokituko zaio eta Idazkaritza Integrazio Asistentzialeko Zuzendaritzari, beharrezkoa bada. Integrazio Asistentzialeko Zuzendaritzarik ez bada, Zuzendaritza Medikoak bereganatuko ditu bi funtzio horiek. Gainerako bokalak lehen mailako arretako profesionalen eta arreta espezializatuko profesionalen artean banatuko dira, erdibana. Kontseilu Teknikoa osatuko duten kideen artean honako proportzioa gordeko da: gutxi gorabehera % 60 fakultatiboak izango dira, eta % 40 erizaintzako langileak.

Erakundeko Gerentziak zehaztuko du zein eremu edo unitatetan izendatuko diren bokalak eta zer prozedura erabiliko den horretarako.

Kontseilu Teknikoaren funtzioak erakundearen Plan Estrategikoan aurreikuspenen barruan zehaztuko dira, eta honako hauek dira

- Unitateen antolakuntza eta funtzionamendua hobetzeari eta asistentzia-kalitateari buruzko politikak, proposamenak eta gomendioak egitea.
- Asistentzia-, diagnosi- eta terapeutika-estrategia berriak baloratzea.
- Ikerketa, irakaskuntza eta prestakuntzaren alorretako jardun-ildoak proposatzea.
- Kudeaketa klinikoko unitateak ezartzeko proposamena egitea.
- Kontseilu Teknikoaren ordezkartzean Zuzendaritza Kontseiluko parte izango diren kideak izendatzea.

**Hamargarrena.**- Erabaki honek indarra hartzen duenetik aurrera, kendu diren zerbitzu-erakundeekin Osasun Sailak zituen harreman ekonomikoak, finantzarioak eta programatikoak ondoko hauenak konfiguratzera pasako dira: sortu diren erakunde sanitario integratu berrienak, hain justu ere.

Erabaki honen bitartez eratzen diren erakunde sanitario integratuek subrogatu egiten dituzte kendutako edo aldatutako eta erakunde horietan integratzen diren zerbitzu-erakundeetako unitateak, zehazki, ondoko arloetako eskubide eta obligazioei dagokienez: ekonomikoa, lanekoa, kontratuena, ondarearena eta beste edozeinetakoa.

**Hamaikagarrena.**- Osakidetza ente publikoko zuzendari nagusiari ahalmenak ematen zaizkio, ebazpen bidez, honako hau egiteko: kentzen diren zerbitzu-erakundetan, 2015eko urtarrilaren 1ean ziren zerbitzu eta unitate guztietako langileen plantillak erakunde sanitario integratu berrietara pasatzeko; eta, halaber, ahalmenak ematen zaizkio beharrezko aurrekontu-egokitzapenak egiteko.

**Hamabigarrena.**-

1. "Ezkerraldea Enkarterri Gurutzeta" erakunde sanitario integratu berria erakunde sanitarioen sailkapeneko 1. taldean sartuko da, betiere Administrazio Kontseiluaren 2013ko uztailaren 18ko Erabaki bidez zuzendaritzako karguentzat onartutako ordainketa-ereduarekin bat etorritik.
2. "Uribe" erakunde sanitario integratu berria erakunde sanitarioen sailkapeneko 3. taldean sartuko da, betiere Administrazio Kontseiluaren 2013ko uztailaren 18ko Erabaki bidez zuzendaritzako karguentzat onartutako ordainketa-ereduarekin bat etorritik.

**Hamahirugarrena.**- Aldi baterako arauak.

"Ezkerraldea Enkarterri Gurutzeta" eta "Uribe" erakunde sanitario integratuak eratutakoan eta harik eta erakunde horietako zuzendaritza-postuak arauz bete arte, postu horiek behin-behinean beteko dira, erakundearen funtzionamendu egokia eta asistentziaren jarraipena bermatzeko.

**Hamalauugarrena.**- Erakunde sanitario integratuen egitura eta funtzionamendua oro har erregulatzeko arauzko xedapen geroztikoetan ezarritakoaren aurka egiten ez duten neurrian, erabaki honetan jasotako aurreikuspenei eutsi egingo zaie, zehazki, euren zehaztapen guztiei.

**Hamabosgarrena.**- Erabaki honek 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera izango du indarra.

Aurrekontuei, behin-behineko egoera finantzarioei eta informazio ekonomiko-finantzarioari dagokienez, 2015eko urtarrilaren 1etik harako ondorioen arabera egokituko da bertan behera uzten den zerbitzu-erakunde bakoitza erakunde sanitario integratu berrietara.

**Hamaseigarrena.**- Erabaki honen eranskinean ezarritakoarekin bat, Osakidetza Ente Publikoaren zerbitzu-erakundeen zerrenda eguneratu egingo da, eta erabaki honen datatik aurrera izango ditu ondorioak.

## ERANSKINA

### OSAKIDETZA ENTE PUBLIKOKO ZERBITZU ERAKUNDEEN ZERRENDA

#### Autonomia Erkidegoaren Lurralde Eremua

1. Osakidetza Ente Publikoko Zuzendaritza Nagusia
2. Emergentziak (Emergentzietako Lurralde Unitateak):
3. Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentroa
4. Osatek, SA

#### Arabako Osasun Barrutiaren Lurralde Eremua

1. Arabako Unibertsitate Ospitalea
2. Lezako Ospitalea
3. Arabako Osasun Mentaleko Sarea
4. Arabako Eskualdea.

#### Bizkaiko Osasun Barrutiaren Lurralde Eremua

1. Ezkerraldea Enkarterri Gurutzeta Erakunde Sanitario Integratua
2. Bilbo-Basurtu Erakunde Sanitario Integratua
3. Barrualde-Galdakao Erakunde Sanitario Integratua
4. Barakaldo-Sestaoko Erakunde Sanitario Integratua
5. Uribe Erakunde Sanitario Integratua
6. Santa Marina Ospitalea
7. Gorlizko Ospitalea
8. Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarea

#### Gipuzkoako Osasun Barrutiaren Lurralde Eremua

1. Donostialdea Erakunde Sanitario Integratua
2. Bidasoako Erakunde Sanitario Integratua
3. Goierri-Urola Garaiko Erakunde Sanitario Integratua
4. Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratua
5. Debarreneneko Erakunde Sanitario Integratua
6. Tolosaldea Erakunde Sanitario Integratua
7. Gipuzkoako Osasun Mentaleko Sarea

## **HIRUGARRENA.-Inbertsio estrategikoak, kontratazio korporatiboko ondasun eta zerbitzuen erosketak eta erosketaren integratuen programa zehazteko proposamena (2015).**

Zuzendari Nagusiak 2015eko aurrekontua onartu ondoren, Kontseiluari aurkeztu zaio inbertsio estrategikoak, kontratazio korporatiboko ondasun eta zerbitzuen erosketak eta 2015erako erosketaren integratuen programa zehazteko proposamena.

Erakunde publikoaren funtzionamendu egokirako beharrezkoa da Administrazio Kontseiluak inbertsio estrategikoak, kontratazio korporatiboko ondasun eta zerbitzuen erosketak eta erosketaren integratuen ekitaldi honetarako programa zehaztea, hain zuzen ere aurkakotasuna izan dezaketen eskumen-eremuak zehazteko eta argitzeko.

Kudeaketaren ikuspuntutik, bereziki premiazkoa da estrategikotzat hartzen diren inbertsioak zehaztea nahiz eta gainerako kontratazioen (estrategikotzat hartzeak haien izapidetzerako eta egikaritzapenerako eskumenean eragiten du) definizioari ere ekin behar zaion, Osakidetza Euskal Osasun Zerbitzua ente publikoaren estatutu sozialak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 20. artikuluan xedatutakoari jarraiki.

Ildo horretan, I. eranskinean biltzen da Osakidetza Euskal Osasun Zerbitzuak estrategikotzat hartzen dituen Obra eta Ekipamenduen zerrenda.

Era berean, II. eranskinean estrategikotzat hartzen diren beste inbertsio eta erosketaren informatiko batzuk jasotzen dira (telekomunikazio korporatiboko zerbitzuak eta aplikazio informatiko korporatiboak garatzeko eta mantentzeko zerbitzuak, baita gainerako ondasun eta zerbitzu informatikoak ere).

Bestalde, medikamentuen eta bestelako farmazia-produktuen erosketaren integratuko (III. eranskina) eta material sanitarioaren eta horniduren (IV. eta V. eranskinak) erosketaren integratuko ekintzen egoera desberdinek eragin dute aurreko ekitaldietako Administrazio Kontseiluaren Erabakietan biltzen ziren produktuak aipatutako eranskinetan zerrendatzea aurtengo ekitaldirako onartzeko planteatu direnekin batera.

Zuzendaritza honen iritziz Estatutu Sozialen 12.7 eta 20. artikuluek aipatzen dituzten kudeaketak eta kontratazioak (hurrenez hurren antolamendu orokorrari eta Zuzendaritza Nagusiari dagozkie) izenpetzen diren kontratuen bidez konprometitutako aurrekontuetan duten eraginaz gain, inbertsioen kasuan, kontratazioaren ondoriozko bajak Zuzendaritza Nagusiaren eskura jarri beharko dira hasierako Planean aurreikusi gabeko inbertsio berriak berresleitzeko.

Ildo horretan, Ente Publikoaren Zuzendaritza Nagusia funts horien helburua erabakitzeke gaitzeko eskatzen da, hain zuzen ere beste inbertsio batzuei ekiteko, bere garaian inbertsio horien finantzaketa zegokien ekitaldiko

aurrekontuan ezin izan zelako jaso; inbertsio estrategikotzat hartuko lirateke Osakidetza euskal osasun-zerbitzuko zuzendari nagusiaren Ebazpen bidez.

Azkenik, proposatzen da kontratazioak estrategikotzat deklaratzeko direnean haien izaerarekin bat datorren indarraldia izatea; horrela, inbertsioen kasuan, behin betiko likidaziora arte izango litzateke eta ondasun eta zerbitzu arrunten kasuan, Administrazio Kontseiluaren Erabaki bidez izaera hori galdu dela deklaratzeko den arte.

Adierazitako guztiagatik eta Osakidetza Euskal Osasun Zerbitzua Ente Publikoaren Estatutu Sozialen 11., 12. eta 20. artikuluetan xedatutakoaren arabera, erabaki-proposamen hau Administrazio Kontseiluari helaraziko zaio, hark onar dezan.

## **OSAKIDETZA EUSKAL OSASUN ZERBITZUAREN ADMINISTRAZIO KONTSEILUAREN 2014ko ABENDUAREN 30eko ERABAKIA, INBERTSIO ESTRATEGIKOAK, KONTRATAZIO KORPORATIBOKO ONDASUN ETA ZERBITZUEN EROSKETAK ETA 2015eko EKITALDIAN EGIN BEHARREKO EROSKETA INTEGRATUEN PROGRAMA ZEHAZTEN DUENA.**

Osakidetza Euskal Osasun Zerbitzua Ente Publikoaren Estatutu Sozialek zehazten dute Administrazio Kontseiluak onartuko dituela estrategikotzat hartzen diren inbertsioak eta horniduren erosketak integratuak.

Bestalde, estrategikotzat zehaztu diren inbertsioen esleipenetan izandako baje ondorioz lortutako kredituak premia berriak asetzerantz bideratu behar dira, eta horretarako Osakidetza Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiari aipatutako geldikinekin batera egiten diren erosketak estrategikotzat deklaratzeko gaitzen zaio.

Jardun-eremu horiek ordenatzeko eta Entearen 2015. urteko kudeaketaren eskumen-eremuak finkatzeko, zuzendari nagusiak proposatuta eta Estatutu Sozialek Administrazio Kontseiluari esleitzen dizkioten eskumenen arabera (batez ere, 8. eta 20. artikuluetan jasotzen direnak), honako erabaki hau hartu da:

### **ERABAKIA**

Lehena.- 2015eko ekitaldirako, Erabaki honen I. eranskinean adierazten diren obren eta ekipamenduen inbertsioak estrategikoak eta kontratazio korporatibokoak direla zehazten da.



Bigarrenena.- Estrategikoak eta kontratazio korporatibokoak deklaratzeko dira honako hauek: telekomunikazio korporatiboko zerbitzuen kontratazioak, aplikazio informatiko korporatiboak garatzeko eta mantentzeko kontratazioak eta II. eranskinean zerrendatzen diren gainerako ondasun eta zerbitzu informatikoak.

Hirugarrenena.- Ente Publikoko zuzendari nagusiari baimena ematen zaio esleipen-prozesuen ondoriozko kreditu-geldikinak inbertsio berrietan erabiltzeko eta inbertsio horien izaera estrategikoa deklaratzeko. Horrela finantzatutako eta egindako inbertsioak Administrazio Kontseiluari jakinaraziko zaizkio.

Laugarrenena.- Medikamentuen eta bestelako farmazia-produktuen erosketak (III. eranskinean zerrendatzen dira) eta erosketen integratuen programa (material sanitarioa, hornidurak eta zerbitzu estrategikoak, hurrenez hurren IV. eta V. eranskinean zerrendatzen direnak) estrategikoak eta kontratazio korporatibokoak direla finkatzen da.

Bosgarrenena.- Estrategikotzat zehaztutako kontratazioek inbertsioak gauzatu arte eutsiko diote izaera horri; ondasun eta zerbitzuen erosketari dagokionez, berriz, Administrazio Kontseiluak izaera hori galdu dutela adierazten duen arte.

Administrazio Kontseiluak zehaztutako kontratazio korporatiboko ondasun eta zerbitzuen erosketen kontratazioak eta erosketen integralen programak beren izaera galduko dute honako inguruabar hauetakoren bat gertatzen denean:

- a) Kontratu zentralizatuen indarraldia 2015eko 31 baino lehen amaitzen den kasuetan, betiere Osakidetza Euskal Osasun Zerbitzua Ente Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak dagokigun ekitaldian ezin izan duenean kontratu zentralizatu berririk izapidetu eta esleitu.
- b) Gerora sortutako inguruabarrak direla-eta, Osakidetza Euskal Osasun Zerbitzua Ente Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak kontratazio korporatiboko ondasun eta zerbitzuen erosketei eta erosketen integratuen programari dagozkien kontratuak izapidetzea eta esleitzea eragozten edo horiek egitea gomendagarria egiten ez den kasuetan.

Seigarrenena.- Inguruabar horiek Zuzendaritza Nagusiko kontratazio-organoak justifikatu beharko ditu eta, halaber, dagokion garaian jakinarazi bai Osakidetza Euskal Osasun Zerbitzuaren zerbitzu sanitarioko erakundeetako dagozkion organoei, baita Eusko Jaurlaritzaren Ogasun Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoari ere.

Zazpigarrena.- Aurrekoa alde batera utzi gabe, adierazitakoaren arabera zerbitzu-erakundeek formalizatzen dituzten kontratuen indarraldia eta eraginkortasuna mugatua izango da dagozkion kontratuak Zuzendaritza Nagusitik formalizatzen diren arte.

Zortzigarrena.- Zerbitzu-erakundeek izapidetu beharreko kontratazio korporatibo eta integratuetako ondasun eta zerbitzuen erosketen kontratazioak aldeztuz aurretik Zuzendaritza Nagusiko dagozkion organoak baliozkotu beharko ditu nahitaez.

Bederatzigarrena.- Erabaki hau Enteko Zerbitzu Sanitarioko Erakunde guztietako zuzendari kudeatzaile guztiei jakinarazi beharko zaie eta horiek martxan jarri beharreko ekintza guztietan ahalik eta emaitzarik onenak bermatzeko behar den laguntza emango dute.

### **LAUGARRENA.- Galde-eskeak**

Atal honetan, idazkariak jakinarazi du Gobernu Kontseiluak abenduaren 23ko bilkuran honako hau sinatzea baimendu zuela: **ARABAKO FORU ALDUNDIKO GIZARTE ZERBITZUEN SAILAK, EUSKO JAURLARITZAREN OSASUN SAILAK ETA OSAKIDETZAK ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO ARRETA SOZIOSANITARIOA HOBETZEKO ELKARREKIN HITZARTUTAKO LANKIDETZA HITZARMENA ALDATZEA.**

Horrenbestez, Osasuneko sailburuak, Ente Publikoaren lehendakari gisa, aipatutako Hitzarmenaren aldaketa sinatu du, Ente Publikoaren Estatutuak onartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 7.2.a artikuluari jarraikiz.

Jorrazeko beste gairik ez dagoenez, bilkura amaitutzat eman da akta honen datako egunaren 12:00etan.

**Stua: María Jesús Gemma MÚGICA ANDUAGA  
SIERRA  
IDAZKARIA**

**Stua.: JON DARPÓN  
LEHENDAKARIA**

